Basarri fue proclamado campeón, cumpliendo así los pronósticos. Sin embargo, el siguiente campeonato (1962) lo ganó Uztapide, y, tras una agria polémica en la prensa, Basarri no volvió a participar en los campeonatos, aunque sí en otros concursos. Retirado Basarri, Uztapide ganó también en los campeonatos de 1965 y 1967.

AUSPOA: EL FUELLE

El motor del bertsolarismo en esta época de los sesenta son, sin duda, los campeonatos, aunque los *bertsolaris* siguen actuando en las sesiones organizadas en los pueblos. Los *bertsos* improvisados en las finales se publican en Auspoa, una colección creada por el padre Antonio Zavala en 1964, con sede en Tolosa (Gipuzkoa), verdadero tesoro del bertsolarismo y de la literatura oral en general.

El nombre de la colección ha resultado ser mucho más que una metáfora ingeniosa. *Auspoa* significa fuelle, y en verdad esa colección ha sido y es un verdadero fuelle que no ha dejado de avivar la llama de la literatura oral.

LOS CUATRO CAMPEONATOS DE LOS SESENTA

Es en estos campeonatos donde se dan a conocer los *bertsolaris* que van a sostener el bertsolarismo durante todo el franquismo y los primeros años de la transición. Junto a la pareja referencial formada por Uztapide y Basarri, aparecen ahora algunos de los *bertsolaris* que asegurarán la pervivencia del arte tras la retirada de la pareja de pioneros. Entre ellos destaca un trío de *bertsolaris* nacidos en Azpeitia (Gipuzkoa): Joxe Lizaso, Joxe Agirre *Oranda* e Imanol Lazkano. Junto al trío azpeitiarra, sostienen el bertsolarismo de esa época *bertsolaris* como Jose Miguel Iztueta *Lazkao Txiki*, Fernando Aire *Xalbador*, Jon Lopategi, Jon Azpillaga o Manuel Lasarte, de los que algo diremos más adelante. Otros nombres dignos de mención son Jose Joakin Mitxelena, Martin Treku *Mattin*, Jon Mugartegi, Txomin Garmendia, Xabier Narbarte *Xalto*, Mikel Arozamena, Jesus Alberdi *Egileor*, Patxi Etxeberria o Patxi Iraola. Aunque significativamente más jóvenes, otros dos *bertsolaris* merecen ser incluidos en la nómina de este periodo, por el papel destacado que tuvieron: Jose Luis Gorrotxategi y Anjel Larrañaga. Como puede constatar, todos los *bertsolaris* eran varones.

Uno de los más significativos es Manuel Lasarte, nacido en Leitza (Navarra) y afincado en Orío (Gipuzkoa), fue un *bertsolari* muy querido y

1964an sorturiko bilduma, bere egoitza Tolosan duena, bertsolaritzaren eta, oro har, euskal ahozko literaturaren benetako altxorra da.

Bildumaren izena, Auspoa, metafora ezin egokiagoa gertatu da, berak mantendu baitu bizirik ahozko literaturaren sua.

1960KO HAMARKADAKO LAU TXAPELKETAK

Txapelketa hauetan agertuko dira frankismo garaian eta trantsizioko lehen urteetan bertsolaritza bizirik mantenduko duten bertsolariak. Basarrik eta Uztapidek osaturiko bikote erreferenzialarekin batera, beste bertsolari batzuk agertuko dira, orain, aitzindariaren bikotea erretiratu ondoren, arte horren biziraupena segurtatuko dutenak. Horien artean Azpeitian jaiotako bertsolari hirukote bat gailentzen da: Joxe Lizaso, Jose Agirre *Oranda* eta Imanol Lazkano. Hirukote azpeitiarrarekin batera, garai horretako bertsolaritzaren euskarri izan dira Jose Joakin Mitxelena, Martin Treku *Mattin*, Jon Mugartegi, Txomin Garmendia, Xabier Narbarte *Xalto*, Mikel Arozamena, Jesus Alberdi *Egileor*, Patxi Etxeberria edo Patxi Iraola. Askoz gazteago izanik ere, badira beste bi bertsolari zerrenda horretan barne hartuak izatea merezi dutenak izan zuten jarduera nabarmenagatik: Jose Luis Gorrotxategi eta Anjel Larrañaga. Ikusten denez, bertsolari guztiak gizonezkoak dira.

Aipagarrietako bat Manuel Lasarte da, Leitzan jaioa eta Orion finkatua, oso bertsolari maitatua eta miretsia izan zen zaletuen aldetik. Lasarteren bertsogintza gauzak ongi esatean oinarritzen da batez ere, bere errimak moldatzerakoan eta esaldiak bertsoaren barruan txertatzerakoan erakusten duen erraztasun eta naturaltasunean.

Bertsolariak, 1960ko hamarkada honetan, eta baita 1970ekoaren lehen urteetan ere, mundua eta funtsezko balioak ikusteko eran, berarekin bat datorren publiko batentzat kantatzen du. Testuinguru horren oinarria Euskal Herriak eta bere hizkuntzak jasaten duten zapalkuntzan datza. Hala, hizkuntzaren iraupena segurtatzera datorrela dirudien edozein elementuk, aparteko testurik edo baliabiderik gabe ere, sortzen eta azalarazten du entzuleriaren emozioa. Euskal sentimenduak garbi adierazteko askatasunik ez dagoenez, gai eta balio tradizionalak, horien artean erlijioa gailentzen dela, ahalbidetzen diote bertsolariari entzuleengan emozio sakonak eragitea bertso soilen bitartez, balio eta erreferentzia horiek aipatze hutsarekin. Txapelketetan ere apenas erabiltzen den lau errimatik gorako bertsorik.

Txapelketa horietako bat-bateko bertsoetan sakontasun poetiko handiko testuen bila doanak desilusio latza jasango du. Bertsolariei proposatzen zaizkien gaiak gehienbat topiko-arketipikoak dira. Bertsolariak badaki euskaltasunaren baieztatze hutsak, ezkutuen delatza ere, bertso-saioaren inguruabar ia liturgikoetan (performancea), emozio sakona eragingo duela bere entzulerian. Badaki entzulea bat datorrela kristau fedearrekin eta balio tradizionalarekin: amaren figura, lana, zintzotasuna...

Ez dago esaterik, noski, aldi horretako bertso guztiak kalitate eskasekoak direnik. Bi bertsolari daude beren bertsoen testuaren kalitateagatik gainerako guztien artean gailentzen direnak, bakoitzaren sendotasun-puntuak desberdinak badira ere. Bat Lazkao Txiki da; bestea, Xalbador.

admirado por los aficionados. El bertsolarismo de Lasarte se basa sobre todo en el bien decir, en la muy elaborada apariencia de naturalidad con la que engarza las rimas y encaja sus frases en los moldes de las estrofas.

El *bertsolari*, en esta década de los sesenta y también, en parte, en la de los setenta, canta para un público con el que comparte estrechamente un modo de ver el mundo y unos valores fundamentales. El fondo de este contexto lo da el sentimiento de opresión en el que malvive el pueblo vasco y su idioma. Sobre ese fondo, cualquier elemento que parezca asegurar la pervivencia del idioma provoca, por sí mismo, una emoción que no precisa para desencadenarse de grandes textos ni recursos. A falta de libertad para expresar directamente los sentimientos vascos, los temas y valores tradicionales, entre los que destaca la religión, permiten al *bertsolari* suscitar grandes emociones en sus oyentes por medio de *bertsos* sencillos, con la mera mención de esos valores y referencias. Incluso en los campeonatos, rara vez se utilizan estrofas de más de cuatro rimas.

Quien pretenda encontrar en los textos de los *bertsos* improvisados en estos campeonatos piezas de gran densidad poética sufrirá un gran desencanto. Los temas que se proponen a los *bertsolaris* son mayoritariamente tópicos-arquetípicos. El *bertsolari* sabe que la mera afirmación de lo vasco, por velada que sea, producirá, en las circunstancias casi litúrgicas de la sesión bertsolarística (performance), una emoción intensa en su auditorio. Sabe que el oyente comparte la fe cristiana y los valores de la tradición: la figura de la madre, el trabajo, la honradez...

No todos los *bertsos* de esa época presentan, por supuesto, esa escasa relevancia textual. Hay dos *bertsolaris* que destacan sobremedida por la calidad textual de sus *bertsos*, si bien sus puntos fuertes son distintos. Uno es Lazkao Txiki; el otro, Xalbador.

LAZKAO TXIKI

Jose Miguel Iztueta *Lazkao Txiki* es, sin duda, lo era ya en los últimos años de su vida, una figura mítica del bertsolarismo. Comparte con Txirrita su empedernida y tónica soltería, que, unida a su escasa estatura corporal, el *bertsolari* de Lazkao (Gipuzkoa) completa un tipo de pícaro distinto al que encarnaba el hernaniarra. Como Txirrita, Lazkao Txiki es, ante todo, *bertsolari*. Son ya proverbiales su agudeza y su ingenio, que unidos a su estampa diminuta, a su voz candorosa y frágil y a su cadenciosa forma de cantar hicieron de él un *bertsolari* querido en vida y añorado tras su muerte.

Lazkao Txiki, como algunos otros *bertsolaris* de su generación, supo adaptarse al cambio de los tiempos, y nunca dejó de ser solicitado en las actuaciones. Una de las estampas inolvidables del bertsolarismo es su actuación en una cena de *bertsolaris* organizada por el programa televisivo *Hitzetik Hortzera* en 1989. El tema lo constituía un espejo de mano, que el conductor de la sesión le entregó en el momento oportuno. Sin dejar de mirar la imagen reflejada en el espejo, Lazkao Txiki improvisó tres *bertsos* antológicos, uno de los cuales transcribimos a continuación:

*Mira, ya que por una vez
nos encontramos cara a cara
te voy a cantar un bertso,
o quizá un par de ellos.*

LAZKAO TXIKI

Jose Miguel Iztueta *Lazkao Txiki* bertsolaritzako mitoetako bat du, zalantzarik gabe, bere bizitzako azken urteetan jadanik halaxe zen. Mutilzaharra, Txirrita bezalaxe, baina gorpuzkera txikikoa izaki, lazkaotarrak aurkezten duen pikaro mota hernaniarrak irudikatzen zuenaren guztiz desberdina da. Txirrita bezala, Lazkao Txiki ere, guztiaren gaineratik, bertsolaria da. Ezagunak dira haren zorrotasuna eta gatzia, eta horri gehitzen badiogu bere gorpuzkera txikia, bere ahots mehe eta hauskorra eta kantatzeko zeukan era kadentziatsua, aise ulertzen da bertsolari maitatua izan zela bizi izan zen denboran eta nostalgiaz oroitua hil zenez geroztik.

17. Joxe Agirre eta Jose Manuel Iztueta *Lazkao Txiki* Bertsolari Egunean. Victoria Eugenia antzokia, Donostia, 1989.

Lazkao Txikik, bere belaunaldiko beste hainbat bertsolarik bezala, denboren alaketara egokitzen jakin zuen eta beti izan zen bertso-jaialdietara gehien deitzen zutenetakoa. Bertsolaritzako pasadizo gogoangarrietako bat 1989an *Hitzetik Hortzera* telebista programak antolatutako bertso-afari batean bota zuen bertso hau du. Gaia esku-ispilu txiki horietako bat zen, gai-jartzaileak kantatzeko une berean eman ziona. Ispiluan islatzen zen irudiaren gaineratik begiak kendu gabe, Lazkao Txikik hiru bertso antologiko bota zituen, horietako bat honako hau:

*Aizak nik hiri bota behar dit
bertso koxkor bat edo bi,
bebingoan jarri geranez gero
biok aurpegiz aurpegi.
Neri begira hortik daduzkak
alferrikako bi begi:
hik ez nauk noski ni ikusiko,
baina nik ikusten haut hi.*

XALBADOR

Fernando Aire *Xalbador* bertsolariaren kasua guztiz desberdina da. Beharbada bere euskalkiak, behenafarrerak, baldintzaturik, nahiko urrundu bertsosale gehienak ohituak zeuden eredu gipuzkoarretik, Xalbador, bizi izan zen garaian, bertsolari miretsia izan bazen ere, ez zen gertatzen jendearentzat Uztapide, Lazkao Txiki edo Martin Treku *Martin* bezain hurbileko edo herrikoi.

Halere, edo agian horrexegatik, Xalbadarren bat-bateko bertsoen testuak dira denboraren iragaitea ongien jasan dutenak, gure gaur egungo sentsibilitatearentzat modernoak gertatzen direnak.

Bere jaioterri Urepeleko artzaina izanik, harrigarria gertatzen da Xalbadarren fintasun poetikoa. Bere bertso-idatzien liburua *Odolaren mintzoa* benetakoa harribitxi bat da, maila goren-gorenko antologia poetikoa.

Bere bertso-idatziak alde batera utzita, haietako asko gaur abesti bihurtuak, Xalbador bat-bateko bertsolari harrigarria izan zen, ohi ez bezalako sentsibilitate poetikoz hornitua. 1965eko txapelketan, bakarka egiteko bertsoaldi baterako gai hauze jarri zioten: «Zure emazte zenaren soinekoari». Xalbadorrek nekez hobe daitezkeen bi bertso hauexek bota zituen:



17. Joxe Agirre y Jose Manuel Iztueta *Lazkao Txiki* en el Día del Bertsolari. Teatro Victoria Eugenia, Donostia/San Sebastián (Gipuzkoa), 1989.

*No sé qué miras con esos ojos
que de nada te sirven:
porque, claro, tú no me ves,
pero yo sí que te veo a ti.*

XALBADOR

El caso de Fernando Aire *Xalbador* es totalmente distinto. Quizá el condicionamiento de su dialecto bajonavarro, bastante alejado del modelo, básicamente guipuzcoano, que la mayoría de los oyentes estaban acostumbrados a oír tenga algo que ver con el hecho de que fuera en vida un *bertsolari* admirado, pero no tan entrañable para la gente como Uztapide, Lazkao Txiki o Martin.

Sin embargo, o quizá por eso mismo, los textos de los *bertsos* improvisados de Xalbador son los que mejor han resistido el paso del tiempo, los que más modernos resultan a nuestra sensibilidad actual.

Siendo como era pastor en su Urepele (Baja Navarra) natal, llama la atención su finura poética. Su libro de *bertsos* escritos, *Odolaren mintzoa* («La voz de la sangre»), es una verdadera joya, una antología poética de primerísimo nivel. Aparte de sus *bertsos* escritos, muchos de ellos convertidos hoy en canciones, Xalbador fue un improvisador extraordinario, dotado de una sensibilidad poética fuera de lo común. En el campeonato de 1965, en una de sus intervenciones en solitario, le correspondió el siguiente tema: «Al vestido de tu difunta mujer». Xalbador improvisó dos *bertsos* difícilmente mejorables:

*Sabed que es imposible
que un viudo sea feliz;
¡Que no se alargue
este sufrimiento!
Hace un año depositamos
su cuerpo inerte en el nicho;
su ropa se balancea ahora,
vacía, ante mi apenada vista.*

*Pentsa zazute alargudu bat
ez daike izan urusa,
dolamen hunek, oi, ez dezala
anitz gehiago luza!
Orai urtea ziloan sartu
andreñoaren gorputza,
haren arropa hantxet dilindan
penaz ikusten dut hutsa.*

*Geroztik nihaur ere nabila
guzia beltzez jantzirik;
ez dut pentsatzen nigar eiteko
ene begiak hesterik.
Ez pentsa gero, andre gaxoa,
baden munduan bertzerik
zure arropa berriz soinean
har dezakeen emazterik.*

Xalbadorrek inprobisatzaile gisa lortu zuen ospe guztia —eta orain aitortzen zaion meritua— goiko horien mailako bertsoei esker irabazi zuen. Ez zeukan Basarrirena edo Uztapiderena bezalako ahots ederrik ez eta Mattinena edo Lazkao Txikirena bezalako sinpatiarik ere.

Esan dugu, Xalbadorren euskara zela eta, entzule arruntak nekez ulertzen zituela haren bertsoak bere sakontasun eta osotasun guztian. Horren adibiderik adierazgarriena 1967ko txapelketan gertatu zen, epaimahaiak bere erabakia azaldu zuenean: Xalbador aukeratu zutela, eta ez Lazkao Txiki, azken urteetako irabazlearen aurka, Uztapideren



18. Fernando Aire Xalbador kantuan eta atzean Jose Luis Gorrotxategi 1967ko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finalean. Anoeta pilotalekua, Donostia.

18

*Desde entonces también yo
voy vestido de negro luto;
ni siquiera para llorar
he de cerrar mis ojos.
No temas, pobrecita mía,
no hay en el mundo otra mujer
que pueda llegar a vestir
un día tu ropa.*

Todo lo que Xalbador fue como improvisador —y los méritos que se le reconocen ahora— se lo ganó a base de *bertsos* de parecido nivel. Ni su voz era un portento, como lo eran, por ejemplo, las de Basarri y Uztapide, ni su popularidad era comparable a la de Mattin o Lazkao Txiki.

Hemos dicho que el idioma impedía al oyente medio apreciar en profundidad sus *bertsos*. La máxima expresión de ese desencuentro se produjo en el campeonato de 1967, cuando el jurado dio lectura a su veredicto, en el que se elegía a Xalbador, y no a Lazkao Txiki, para jugarse la *txapela* en el último asalto contra el sempiterno campeón, Uztapide. Leída el acta, el público comenzó a protestar, silbando no se sabe exactamente si contra Xalbador o contra el jurado. La pitada fue sonora y larga, muy larga. En un determinado momento, Xalbador se acercó al micrófono y comenzó a cantar un *bertso*, apenas audible en el estruendo de la pitada:

*Hermanos, hermanas, no penséis
que me siento a gusto:
¡Cuánto mejor estaría
mirando desde un rincón!
Si no estáis contentos
no será por mi culpa...*

En ese instante, los pitos se tornaron aplausos y vivas hacia Xalbador, que apenas pudo terminar su *bertso*:

*...Si no estáis contentos
no será por mi culpa:
me habéis silbado,
pero yo os sigo queriendo.*

A partir de esa edición, la academia de la lengua vasca dejó de organizar campeonatos de *bertsolaris*. En seguida llegaron los años de represión más encarnizada, los primeros atentados mortales de ETA, los juicios de Burgos. Salvo algún efímero paréntesis, el estado de excepción fue, durante años, la norma del estado en el País Vasco.

Xalbador murió el día en el que el *bertsolarismo* le dedicaba un homenaje en su Urepele natal, el 7 de noviembre de 1976, dejando un libro difícilmente superable y un recuerdo como *bertsolaris* que se agiganta a medida que pasan los años.

ANTES Y DESPUÉS DE FRANCO: LOPATEGI Y AZPILLAGA

En la década de los setenta, el protagonismo recae en los *bertsolaris* que habían aparecido en escena a raíz de los campeonatos de la década

19. Jon Azpillagari eta Jon Lopategiri omenaldia. Zerain, 1992.

aurka amaierako saioan txapela jokatzeke. Erabakiaren berri jakin bezain laster, publikoa protestatzen eta txistuka hasi zen, ez dakigu seguru Xalbadorren aurka ala epaimahaiaren aurka. Txistualdia zaratatsua eta luzea izan zen, oso luzea. Horretan, Xalbador mikrofonora hurbildu eta bertso hau kantatzen hasi zen, ia entzuten ez bazitzaion ere iskanbila haren erdian:

*Anai-arrebak, ez otoi pentsa
ene gustura nagonik;
poz gehiago izango nuke
albotik beha egonik
Zuek ez bazerate kontentu,
errua ez daukat ez nik...*

Eta bat-batean txistuak Xalbadorren aldeko esku zarta eta eupada bihurtu ziren eta, kostata bada ere, honelaxe amaitu zuen bertso hura:

*...Zuek ez bazerate kontentu
errua ez daukat ez nik:
txistuak jo dituzute baina
maite zaituztet orainik.*

Edizio hartatik aurrera, Euskaltzaindiak utzi egin zion bertsolari txapelketak antolatzeari. Laster iritsiko ziren errepresioaren urte gogorrenak, ETAren heriozko lehen atentatuak eta Burgosko epaiketak. Parentesi laburren batzuk kenduta, salbuespen-egoera izan zen hainbat urtetan Estatuaren ohiko araua Euskal Herriarentzat. Xalbador bere sorterrri Urepelen hil zen, bertsolaritzak omenaldi bat eskaintzen zion egun berean, 1976ko azaroaren 7an, nekez hobetu daitekeen liburu bat, eta urteak igaro ahala handiagotuz doan bertsolari ospea utziz.

FRANCOREN GARAIA ETA ONDOREN: LOPATEGI ETA AZPILLAGA

1970eko hamarkadan protagonista jarraitzen dute aurreko hamarkadako txapelketetan parte hartu zuten bertsolariek. Diktadorearen akabera gero eta hurbilago ikusten den neurrian, gauzak zuzenago esateko premia ere areagotuz doa, agintarien baimenarekin edo gabe.

Bertsolaritza politiko-errebindikatzailerako baten premia nagusituz doa pixkanaka, publikoak eskatzen duena esatera ausartzen diren bertsolariek zigor asko jasan beharko duten arren. Bi bertsolari gailentzen dira aldi honetan: Jon Lopategi eta Jon Azpillaga.

1997an eskaini zitzaizkien ondo merezitako omenaldi batean, bi protagonistek, Lopategi hasita, honela deskribatu zuten garai hartako bertsolaritza:

anterior. A medida que se percibe el fin inminente del dictador, aumenta la necesidad de decir las cosas de una manera más directa, con o sin permiso de la autoridad gubernativa.

Un bertsolarismo más directamente político-reivindicativo se impone poco a poco, lo que reporta no pocos castigos a los *bertsolaris* que se atreven a decir lo que el público demanda. Destacan en esta época dos *bertsolaris*: Jon Lopategi y Jon Azpillaga.

En un merecido homenaje que se les tributó en 1997, ambos protagonistas, comenzando por Lopategi, describen así el bertsolarismo de aquella época:

*Faltaba ánimo,
sobraba represión,
pero el corazón nos impulsaba
a no permanecer ociosos.
Recorrimos las siete provincias
cantando hermosos bertsos;
días felices porque éramos
pregoneros de Euskadi*

*Nunca dejábamos de acudir
a donde se nos llamara;
llevábamos alegría
a pueblos y aldeas;
la palabra era nuestro argumento,
el bertso nuestra arma,
reclamábamos, como hoy,
un Pueblo Vasco unificado.*

19. Homenaje a los *bertsolaris* Jon Azpillaga y Jon Lopategi. Zerain (Gipuzkoa), 1992.



*Animu asko ez zan izaten,
pertsekuzino ugari,
baina bihotzak hala aginduta
ez ginan ibili nagi.
Zazpi probintzi pasa genduzen
bertso ederrez kantari,
ze egun eder gozoak haiek
Euskadiren pregoilari.*

*Deitzen euskuen leku danera
botatzen gendun pausua;
alaitasunez jartzen genduan
herria eta basua;
arrazoitzako berba genduan,
arma moduan bertsoa,
gaurko moduan eskatzen gendun
Euskal Herri bat osua.*

*Honek premisak jotzen zituzten
eta konklusinoak nik,
ez zan hain gatxa sentimentua
argumentutzat izanik.
Asko ez ziren kontuan jausten
abertzaleak ziranik,
baina bihotza zabaltzen jaken
«*hau Euskadi da*» esanik.*

Francoren heriotzarekin, Euskal Herrian optimismo- eta itxaropen-giroa sortu zen eta hainbat garaipen pozgarri ospatu ahal izan zituen herriak: kartzelan zeudenen lehenbiziko askapenak, ikurrina legeztatzea, amnistia, etab. Giro politikoa zeharo desberdina bada ere, bertsolariak oraindik ere, bere itxaropen, erreferentzia eta balio berberak partekatzen dituen publikoa dauka aurrean. Horregatik, nahiago izan dugu Francoren heriotzaren ondorengo lehenbiziko urteak «Erresistentzia bertsolaritza» epigrafe honetan barne hartu, izan ere trantsizioko lehen urteetako bertsolaritza garatzen den testuinguruko baldintzak direla eta, hurbilago baitago diktadura garaiko bertsolaritza, geroago, publikoaren zatiketarik eta desengainutik sortuko den bertsolaritza baino.

HERRIARENTZAT ABESTETIK PUBLIKOARENTZAT ABESTERA: 1980-1998 AMURIZA

Hamahiru urteko parentesiaren ondoren, Euskaltzaindiak berriz ere bertsolari txapelketa bat antolatzea erabaki zuen, eta finala Donostian egin zen, 1980ko urtarrilaren 6an.

Gauzak (bertsolariak, bertsoak egiteko era) ez dirudi asko-asko aldatu direnik azken txapelketatik, 1967an Xalbadorri txistuak jo zizkieteneko hartatik.

Zortzi finalistetako batzuk 1967an ere finalista izanak ziren: Garmendia, Lopategi eta Gorrotxategi. Hauekin batera Patxi Etxeberria eta Anjel Larrañaga agertu ziren, bertsolaritza erraza, zuzena eta herrikoia praktikatzen zuten bi gipuzkoar. Manuel Sein *Xanpun* ere han

*Este ponía las premisas
y yo sacaba las conclusiones:
no es tan difícil si la razón
se basa en el sentimiento.
Muchos no tenían conciencia
de ser abertzales, pero
se les ensanchaba el corazón
al oírnos: «esto es Euskadi».*

Tras la muerte de Franco, se crea en el País Vasco un clima de optimismo y esperanza, jalonado con explosiones de júbilo por cada conquista que se va realizando: primeras excarcelaciones, legalización de la *ikurrina*, amnistía, etc. Aunque el clima político es radicalmente distinto, el bertsolari sigue teniendo ante sí un público que comparte sus mismas esperanzas, referencias y valores. Es por eso que hemos preferido englobar los primeros años tras la muerte de Franco en este epígrafe de «Bertsolarismo de la resistencia», pues las condiciones contextuales en las que se desarrolla el bertsolario de los primeros años de la transición lo hacen más asimilable al bertsolario del tiempo de la dictadura que al bertsolario posterior, que surge del desencanto y de la división del público.

DE CANTAR AL PUEBLO A CANTAR PARA EL PÚBLICO: 1980-1998 AMURIZA

Tras un paréntesis de trece años, la academia de la lengua vasca decide organizar un nuevo campeonato de *bertsolari*, cuya final se celebró en Donostia/San Sebastián el día 6 de enero de 1980.

Las cosas —los *bertsolari*, la forma de hacer bertsolario— no parecen haber cambiado demasiado desde el último campeonato, aquel de 1967 en el que Xalbador fue silbado.

Algunos de los ocho finalistas lo habían sido también en 1967: Garmendia, Lopategi y Gorrotxategi. Junto a ellos, aparecen Patxi Etxeberria y Anjel Larrañaga, guipuzcoanos que practican un bertsolario sencillo, directo y popular. Está también Manuel Sein *Xanpun*, en representación del País Vasco del Norte (Xalbador había fallecido ya, y Mattin, que moriría al año siguiente, apenas aparecía en público).

La novedad son dos *bertsolari* vizcaínos. Uno de ellos era Jon Enbeita, hijo y nieto de los ya citados *bertsolari* Balendin y Kepa Enbeita *Urretxindorra*. El otro era Xabier Amuriza, precursor de prácticamente todas las facetas del bertsolario de nuestros días. Amuriza había sido sacerdote, y fue encarcelado, junto a otros clérigos afines al nacionalismo. Durante su encarcelamiento, se dedicó a reflexionar sobre el bertsolario y a componer *bertsos* escritos.

Pero volvamos al campeonato de 1980. Ya en las sesiones eliminatorias había sorprendido la forma de Amuriza de componer *bertsos*. Fue, sin embargo, en la final de aquel campeonato cuando terminó de exponer su forma de entender el bertsolario. Aquel campeonato fue el primero de los dos que ganó Amuriza, y lo ganó tras un desempate con Jon Enbeita. Dos años más tarde, volvería a repetir *txapela*, esta vez tras

zen, Iparraldearen ordezkartzan (Xalbador hila zen eta Mattin, handik urtebetera hilko zena, apenas agertzen zen jendaurrean).

Berritasuna bi bertsolari bizkaitar ziren. Bietako bat, Jon Enbeita zen, jadanik aipatu ditugun Balendin eta Kepa Enbeita *Urretxindorraren* semea eta iloba. Bestea Xabier Amuriza zen, gure egunetako bertsolaritzaren ia ikuspegi guztien aitzindaria. Amuriza apaiz izana zen eta beste elizgizon abertzale batzuekin batera espetxeratua. Bere presoaldian bertsolaritzari buruz gogoeta egiten eta bertsoak idazten eman zuen denbora.

Baina itzul gaitezen 1980ko txapelketara. Kanporaketa-saioetan jadanik Amurizak harriturik utzi zuen jendea bertsoak moldatzeko zeukan erarekin. Halere, txapelketa hartako finalean argi utzi zuen nola ulertzen zuen berak bertsolaritza. Txapelketa hura izan zen Amurizak irabazi zuen lehenbizikoa, azken saioan Jon Enbeita gaingitu ondoren. Bi urte geroago berriro izan zen txapeldun, berdinketa-hauste dramatiko baten ondoren, jadanik aipatu dugun beste bertsolari baten aurka: Jon Lopategi, denbora berrietara ongien egokitu den bertsolarietako bat, eta bera ere txapelketa bat irabaztera iritsiko zena, 1989koa, bertsogintza distiratsu, sakon eta oso ongi moldaturiko batekin.


Asko hitz egin da 1980ko txapelketan Amurizak eragin zuen iraultzaz. Hona hemen aipatu ohi diren alderdietako batzuk: bere bertsoak euskara batuan egiten hasi zen lehenbiziko bertsolaria izan zen; ordura arte sekula erabili ez ziren errimak ekarri zituen; Amurizaren irudiak sakontasun poetiko handikoak dira eta haien aurrekari bakarra Xalbadorren bat-bateko bertsoetan aurki daiteke.

Halere, hemen sustatzen dugun ikuspegi berritik, erretorikoa gehiago poetikoa baino, esan beharra dago Amurizaren ekarpen handienak, aipatu ditugunak ere gutxietsi gabe, honako hauek direla: errimak antolatzea berariazko komunikazio estrategia baten arabera eta ahozko baliabideak estrategikoki baliatzea intenzionalitate berri batekin, bestetik.

Bigarren alderdi hau dela eta, aipagarria da nola erabiltzen dituen Amurizak oralistek *formulak* deritzen horiek, eta nolako karga poetiko-erretorikoz hornitzen dituen. 1980ko txapelketako finalean, Amurizak, bakar-saioan, honako gai honi buruz kantatu behar izan zuen: «Gizona ez da ogiz bakarrik bizi». Hona bere saioko lehenbiziko bertsoa:

*Gai horrek badu mamia
baldin ez banago gor;
hainbat jende gizaseme
ikusten ari naiz hor;
ogiaz gain gizonari
anitz gauza zaio zor,
bestela mundu hontara
hobe ez gintezen sor:
ogiakin justizia
behar dugu derrigor;
hau sinisten ez duenik
ba al da hemen inor?*

Amurizarekin lau errimatik gorako bertsoetarako joera hasten da, hurrengo txapelketetan areagotuz joango den joera. Bertsoak luzatzeko joera hori ez da arrazoi gabea, sendotasun poetiko-erretoriko handiagoko bertsoak egiteko premiak eragina baizik, eta premia horrek aldi berean testuinguru partekatuaaren homogeneotasunaren galera ekarriko du.



20. Xabier Amuriza kantuan Bertso Egunean. Donostia, 2005.

20. Xabier Amuriza cantando en el Día del Bertso. Donostia/San Sebastián (Gipuzkoa), 2005.

un dramático desempate con un *bertsolari* que ya hemos mencionado: Jon Lopategi, uno de los *bertsolaris* que mejor ha sabido adaptarse (y adaptar su bertsolarismo) a los nuevos tiempos, y que llegaría también a ganar un campeonato, el de 1989, con un *bertso* brillante, profundo y muy elaborado.

Mucho se ha hablado de la revolución inducida por Amuriza en el campeonato de 1980. He aquí algunos de los aspectos que suelen mencionarse: por primera vez un *bertsolari* compone sus *bertsos* en *euskara batua* (estándar unificado); aparecen rimas antes nunca usadas; la imaginería de Amuriza, de gran calado poético, solo tiene precedente en los *bertsos* improvisados de Xalbador.

Sin embargo, desde la nueva perspectiva, más retórica que poética, que propugnamos aquí, ha de decirse que las mayores aportaciones de Amuriza son, sin negar las mencionadas: la ordenación de las rimas conforme a unas estrategias comunicativas conscientes y el aprovechamiento estratégico de los recursos orales con una nueva intencionalidad.

En este último aspecto, destaca el empleo que Amuriza hace de eso que los oralistas llaman *fórmulas*, a las que Amuriza dota de una gran carga poético-retórica. En la final del campeonato de 1980, Amuriza tuvo que cantar en solitario sobre el siguiente tema: «No solo de pan vive el hombre». He aquí el primer *bertso* de su intervención:

Hori egiazatzeko, aski da Uztapidek 1962ko txapelketan bota zuen bertso bat Amurizak 1980ko txapelketan abestu zituenekin konparatzea. Gaia antzekoa zen bi kasuetan: «Ama» Uztapideren kasuan, eta «Aita», Amurizarenean.

Hauxe izan zen Uztapidek abestu zuen aurreneko bertsoa:

*Hauxe da lan polita
orain neregana
alboko lagunendik
etorri zaidana.
Bertsoak bota behar
dira hiru bana
hortan emango nuke
nik nahitasun dana:
beste ze-esanik ez da
esatian «ama».*

Jakina, ia ezinezko da testu horrek, berez, inor hunkitzea. Bertso guztiak ere ez zukeen hunkituko, entzuleria baten aurrean abesturik, baldin ama ez balitz entzuleek eta bertsolariak partekatzen zuten ongien sustraituriko balioetako bat, areago, benetako arketipo bat euskaldunen irudigintzan. Horrexegatik, Uztapidek nahikoa zuen ezarritako gaia aipatze hutsarekin, bere entzuleria hunkitzeko. Ikusten den bezala, gainerako silaba guztiak komunikazio-egoeraren beste elementu batzuk aipatzeko baliatzen ditu. Uztapidek abesten dion ama, bestalde, edozein ama da, ama bere horretan, han bildurik dauden guztiek ez bairik gabe partekatzen duten balio arketipiko bat. Gaur egun, ordea, ezein bertsolari ez litzateke ausartuko Uztapidek orduan baliatu zuen estrategia bera erabiltzera. Baina horrek ez digu eskubiderik ematen bertso hura arbuiatzeko, ez eta bere garaian eragin zuen hunkidura, pantomima edo fartsatzat hartzeko ere. Segur aski bertso sofistikuago batek ez zukeen hainbesteko emoziorik eragingo. Beraz, esan beharra dago, amaitzeko, bertso bikaina dela, nahiz eta bere testuak ez daukan aparteko baliorik, poetika idatziaren teoriaren arabera.

Amurizak, ordea, 1980an badaki, bere entzuleria hunkiarazteko, ez dela nahikoa aita aipatze hutsa, zerbait gehiago behar duela, eta zerbait horrek elaborazio erretoriko handiagoa eskatzen du. Lehenengo eta behin, arketipoari abesteko aukera baztertzen du, eta berea besterik izan ezin daitekeen aita bat aurkezten digu. Zehazpen horrek, elaborazio erretoriko handiago horrek, bestalde, bertso mota handiagoa eskatzen du.

Bigarren bertsoan, segur aski saileko onena, areago zehazten du bere aitaren irudia, harekiko lotura aita-emeen arteko lotura baino zerbait gehiago dela adieraziz. Bere aita ez ezik, maisua ere bada, izan ere berak xertatu zion bertsolariarako zaletasuna. Horrela lotzen du Amurizak bere iragan pertsonal eta afektiboa bertsoan dihardueneko lekuarekin eta unearekin:

*Aita nuen nik umoretsua,
inoiz geza ta gazia,
harek agertu zidan bidea
baitzen bertsoz ikasia;
oi, nere aita, nire egunak
ere aurrera doaz ia,
baina zugandik hartua baitut*

*O yo estoy sordo
o este tema tiene su miga;
veo ahí ante mí
bastantes hombres;
además del pan, el hombre
necesita muchas más cosas.
Si no las tiene, más le valdría
no venir a este mundo;
Como el pan, la justicia
nos es imprescindible.
¿Hay alguien aquí
que no lo crea así?*

Con Amuriza comienza una tendencia hacia los *bertsos* de más de cuatro rimas, tendencia que se irá acrecentando en los siguientes campeonatos. Esa nueva inclinación a alargar el *bertso* no es arbitraria, sino que está relacionada con la necesidad de producir textos de mayor consistencia poético-retórica, necesidad que a su vez ha de relacionarse con la pérdida de homogeneidad del contexto compartido.

Para comprobarlo, basta comparar uno de los *bertsos* improvisados por Uztapide en el campeonato de 1962 con los que cantó Amuriza en el campeonato de 1980. El tema era parecido en ambos casos: «La madre» en el caso de Uztapide, y «El padre» en el de Amuriza.

Este fue el primero de los *bertsos* que Uztapide cantó:

*Bello tema este
el que me propone ahora
mi compañero.
Hemos de cantar, pues,
tres bertsos cada uno;
estoy seguro de que podré
decir todo lo que quiero,
pues nada queda por decir
cuando se dice: «madre».*

Evidentemente, el mero texto difícilmente puede emocionar a nadie. Tampoco lo habría hecho el *bertso* en su totalidad, cantado ante el auditorio, si la *madre* no fuera uno de los valores más fuertemente compartidos por oyentes y por el *bertsolari*, es más, si no fuera todo un arquetipo en la imaginación popular vasca. En realidad, a Uztapide le bastaba con mencionar el tema impuesto, pues su mera mención producía emoción en su auditorio. Como puede apreciarse, las sílabas restantes las emplea para aludir a distintos elementos de la situación comunicacional. La madre a la que canta Uztapide es, por otra parte, cualquier madre, la madre en sí, un valor arquetípico fuertemente compartido por todos los allí reunidos. Hoy en día, en cambio, ningún *bertsolari* se atrevería a utilizar la misma estrategia que en su día usó Uztapide. Pero eso no nos da derecho a descalificar el *bertso*, ni a tildar de pantomima o farsa la emoción que en su día produjo. Con toda seguridad, un *bertso* de texto más sofisticado no hubiera conseguido inducir tanta emoción. Hemos de concluir, por tanto, que se trata de un excelente *bertso*, por más que su texto no resulte, a la luz de la teoría de la poética escrita, ninguna maravilla.

*bertsotarako grazia,
nik egingo dut arbola haundi
zuk emandako hazia.*

Hirugarren eta azken bertsoan, bere aitari zuzendua bada ere, Xabier Amurizak entzuleria inplikatzan du, aurretiaz berak aitari eskaini dizkion txaloak eskatuz. Bertsoaren estrategia nagusia honetan datza, garatzen diharduen gaia lotzean bertan bizi duten benetako egoerarekin:

*Gai hau kolpera jarriko zenik
ia ametsa dirudi;
baserri hartan izan genduen
hainbat harri eta euri;
zu, aita, zinen hain on niretzat,
ez gogorra, baizik guri;
Euskal Herria nola dagoen
orain Donostin ageri,
niri jotako txalo guztiak
bidaltzen dizkizut zuri.*

Azken bertso horretan aurkitzen dugu Amurizaren beste abilezia handietako bat: bere antzerkirako gaitasuna, nolako maisutasunez uztartzen dituen bertso-saioa gauzatzen ari deneko planoak eta denborak, une horretan asmatzen ari den fikziokoekin. Nor txalotu zuen publikoak, Amurizak bere bertsoa amaitu zuenean? Bertsolaria? Aita? Biak? Dena dela ere, final guztiko unerik hunkigarrietako bat izan zen hura.

Ikusten denez, bai Uztapidek amaren gaietan eta bai Amurizak aitarenean, elementu berberak baliatzen dituzte: testua, testuingurua eta egoera. Aldatzen dena elementu horiek erabiltzeko modua da, eta bat-bateko komunikazioaren multzoan ematen zaien garrantzi erlatiboa.

AMURIZATIK EGAÑARA

Amuriza da ia bertsolari nagusi bakarra 1980ko hamarkadako lehen urteetan. 1982ko txapelketa, esan dugun bezala, berak irabazi zuen berriz ere.

Hurrengo txapelketaren antolaketa zela eta, polemika garrantz bat sortu zen eta txapelketa atzeratu egin behar izan zen. Azkenean 1986an izan zen eta ez 1985ean, behar zukeen bezala. Baina antolaketaz ez zen arduratu Euskaltzaindia, baizik bertsolari eta bertsolaritza mugimenduaren inguruan lanean ziharduten beste pertsona ezagun batzuek osaturiko lantalde bat. Txapelketa hura antolatzeko eratu zen 1987an Bertsolari Elkarte, 1996tik Bertsozale Elkarte izenarekin ezagutzen dena.

1986ko txapelketa Sebastian Lizasok irabazi zuen, jadanik aipatu dugun beste bertsolari baten semea, Joxe Lizasorena. Sebastian Lizasok, ahots sendoaz gainera, erraztasun harrigarria dauka bertsoan zernahi esateko, une egokian arrazoi egokia aurkitzeko eta bertsolariak hain berea duten abilezia hori lehiakidearen argudioak ezeztatzeko. Horri guztiari gehitu behar zaio berezko intuizioa beste zenbait bertsolari

En cambio, Amuriza, en 1980, sabe que para provocar la emoción de su auditorio no es suficiente la mera mención de la palabra *padre*, que necesita algo más, y ese algo más significa mayor elaboración retórica. En primer lugar, desecha la opción de cantar al arquetipo, y nos presenta un padre que solo puede ser el suyo. Esa concreción, esa mayor elaboración retórica requiere, a su vez, un tipo de estrofa más amplio.

En el segundo *bertso*, quizá el mejor de la serie, profundiza en la concreción de la figura de su padre, poniendo de manifiesto que su relación con él iba más allá de la relación paterno-filial. Se trata de su padre, pero también de su maestro, pues fue él quien le inculcó la afición por el bertsolarismo. Amuriza relaciona así su pasado personal y afectivo con el lugar y el momento presente en el que desarrolla su improvisación:

*Mi padre fue un hombre alegre,
aunque tenía momentos tristes y amargos;
él me enseñó el camino a seguir,
pues entendía bastante de bertsolarismo.
Querido padre, también yo
voy agotando mis días,
pero ya que a ti te debo
mi habilidad de bertsolari,
te prometo que haré un gran árbol
de la semilla que pusiste en mis manos.*

En el tercer y último *bertso*, aunque se dirige a su padre, Xabier Amuriza implica directamente a los oyentes, a quienes solicita un aplauso que él dedica de antemano a su padre. La estrategia principal del *bertso* es su conexión directa a la situación de la sesión:

*Que me haya tocado este tema
me parece casi un sueño;
en aquel caserío vivimos
días de granizo y de lluvia,
tú, padre, eras tan bueno conmigo,
nada riguroso, todo dulzura;
ahora que todo el Pueblo Vasco
está aquí reunido en San Sebastián,
todos estos aplausos
te los dedico yo a ti.*

En este último *bertso* encontramos otra de las grandes habilidades de Amuriza: su capacidad teatral, la maestría con que imbrica los planos y los tiempos en que se celebra la sesión y los de la ficción que está improvisando en ese momento. ¿A quién aplaudió el público al terminar Amuriza su *bertso*? ¿Al *bertsolari*? ¿A su padre? ¿A ambos? En todo caso, ese fue uno de los momentos más emocionantes de toda la final.

Como se ve, tanto Uztapide en el tema de la madre como Amuriza en el del padre, manejan los mismos elementos: texto, contexto, situación. Lo que varía es la gestión de los mismos y su importancia relativa en el conjunto de la comunicación improvisada.

erabiltzen dituzten baliabide eta estrategiak airean harrapatu eta bere egiteko. Aspaldian izan da, eta da oraindik, publikoak eta antolatzaileek gehien eskatzen duten bertsolarietako bat. Lizasoren bertsolaritza esan daiteke bertsolaritza dialektikoa dela, zuzena, eta etekinik handiena ateratzen diela ahozko baliabide ohikoenei. Bere estrategiak garatzeko ez du errima kopuru handiko bertsoen beharrik. Alderantziz, mota horretako bertsoetan, txapelketetan hainbesteko garrantzia ematen zaion horietan, moldatzen da gaizkien, eta horrexegatik erabaki zuen gehiago ez aurkeztea. Argudiatu behar denean, ordea, entzuleriaren aurrean hainbat ordutan kantatu behar denean, gutxi dira itzalik egingo dioten bertsolariak.

1989ko txapelketako irabazlea, esan dugun bezala, Jon Lopategi izan zen, gaur egungo bertsolaritzako beste erreferente nagusietako bat.

Urtebete lehenago, 1988an, Euskal Telebista bertsolaritzari buruzko programa bat ematen hasi zen, *Hitzetik Hortzera*, eta huraxe izango zen bertsolaritzak 1990eko hamarkadaren hasieran ezagutu zuen gorakada nabarmena eragin zuten faktoreetako bat. Faktore nagusia, halere, beste bat izan zen: 1980ko hamarkadaren amaieran agertu zen bertsolari belaunaldi berria.

1986ko txapelketaren finalean lehiatu zen bertsolari-taldea da esan dugun belaunaldi berri horren adierazgarri: Sebastian Lizaso txapeldunarekin, eta Jon Lopategi, Jon Enbeita eta Xabier Amurizarekin batera, beste bertsolari batzuk agertu ziren gorenera iritsi eta bertan geratuko zirenak (horietako batzuk 1982ko finalean parte hartuak): Anjel Mari Peñagarikano, Iñaki Murua, Jon Sarasua eta Andoni Egaña zarauztar gazte bat, aurrerago mintzatuko garena.

1989ko finalean gauzak ez ziren asko aldatu. Jon Lopategi txapeldunaren ondoan, hor ageri dira berriro Jon Enbeita, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso. Parte hartu zutenetako beste bat Mikel Mendizabal izan zen, eta indartsu agertu zen final hartako bertsolari gazteena Xabier Euzkitze. Bitxikeria gisa aipatu beharra dago final hartan parte hartu zutenetako bi bertsolari, bialdi luze eta emankorretan Bertsozale Elkarteko buru izan direnak. Horietako bat Iñaki Murua da, 2005etik 2018ra elkarteko buru izan zena. Bestea Imanol Lazkano da, elkarteko buru beronen fundaziotik hasita. Lazkano, goi-mailako bertsolaria izateaz gain, Bertsozale Elkarteko aurreneko lehendakaria izan zen eta ia bi hamarralditan jardun zuen kargu horretan (1987-2005) belaunaldien arteko zubi gisa garatu zuen lan etengabeari esker, bertsolaritzaren eta beronen berrikuntzaren artikulaziorako giltzarri bihurtu da.

Gauzak horrela, eta aurreko txapelketetan gertatzen ez zen bezala, 1993ko txapelketa antolatu zenean, bertsolariak jadanik euskal kulturako pertsonaia ospetsu dira. Haurrek autografoak eskatzen dizkiete kalean, etengabe agertzen dira irratiko zein telebistako programetan eta ez dago bertsolaririk gabeko ekitaldi sozialik. Bertsolaritzaren gorakada hori 1993an, Egañak bere lehenbiziko txapela irabaztean, iritsiko da gailurrera. Hurrengo lau txapelketek (1993, 1997, 2001 eta 2005) garaile berbera izan zuten, Andoni Egaña, marka horrekin, bertsolaritzaren historian txapel gehien irabazi dituen bertsolaria bihurtu delarik.

Baina, esan dugun bezala, bertsolaritza txapelketak baino askoz gehiago da, gertatzen dena da honako hau bezalako azalpen labur batean ia ezinbesteko dela gauzak sinplifikatzea. Zentzu horretan, hainbat bertsolari daude txapelketetan ondoegi moldatzen ez direnak (edo beste gabe, horrelakoetan parte hartzen ez dutenak) baina zaletuen

DE AMURIZA A EGAÑA

La figura de Amuriza domina prácticamente en su totalidad los primeros años de la década de los ochenta. El campeonato de 1982, como ya hemos indicado, lo vuelve a ganar Amuriza.

De cara al siguiente campeonato se generó una amarga polémica y su celebración se tuvo que posponer. Finalmente se celebró en 1986 y no en 1985 como correspondía. Pero su organización ya no corrió a cargo de la Real Academia de la Lengua Vasca — Euskaltzaindia, sino que fue asumida por un grupo de trabajo constituido tanto por *bertsolaris* como por otras personas relevantes del movimiento bertsolarístico. En torno a la organización de aquel campeonato se constituyó, en 1987, Bertsolari Elkartea (Asociación de Bertsolaris), que a partir de 1996 pasó a denominarse Asociación de Amigos del Bertsolarismo — Bertsozale Elkartea.


El campeonato de 1986 lo ganó Sebastian Lizaso, hijo de otro *bertsolari* que ya hemos mencionado, Joxe Lizaso. Sebastian Lizaso une a su potente voz una facilidad pasmosa para expresarse en *bertso*, y una capacidad de encontrar la razón oportuna en el momento oportuno y de rebatir las razones de su contrincante que ya son proverbiales entre los *bertsolaris*. A todo ello hay que añadir una intuición innata para cazar al vuelo y hacer suyos recursos y estrategias que otros *bertsolaris* utilizan. Ha sido, y es, uno de los *bertsolaris* más solicitados por público y organizadores. El bertsolarismo de Lizaso es un bertsolarismo dialéctico, directo, que explota al máximo los recursos orales más comunes. Para desarrollar sus estrategias, no precisa de *bertsos* de gran número de rimas. Antes bien, es en ese tipo de *bertsos*, que tanto se han primado en los campeonatos, donde peor se desenvuelve, por lo que hace tiempo que decidió no participar en ellos. Por el contrario, cuando se trata de argumentar, cuando se trata de cantar durante horas ante un auditorio, pocos *bertsolaris* pueden hacerle frente.

El campeonato de 1989 lo ganó, como queda dicho, Jon Lopategi, otro de los grandes referentes del bertsolarismo actual.

Un año antes, en 1988, había comenzado su andadura un programa de televisión sobre bertsolarismo, *Hitzetik Hortzera*, que sería uno de los factores del gran *boom* del bertsolarismo, a principios de la década de 1990, aunque la principal causa del ese *boom* es la aparición de una nueva generación de *bertsolaris* hacia el final de la década de 1980.

El plantel de *bertsolaris* que disputaron la final del campeonato de 1986 es un buen reflejo de esa nueva generación. Con el campeón Sebastian Lizaso, y junto a los veteranos Lopategi, Amuriza y Enbeita, aparecieron *bertsolaris* que llegaban a la elite para quedarse (alguno de ellos ya había participado incluso en la final de 1982): Anjel Mari Peñagarikano, Iñaki Murua, Jon Sarasua, y el zarauztarra Andoni Egaña, del que nos ocuparemos en detalle más adelante.

En la final de 1989 las cosas no variaron demasiado. Junto al campeón Jon Lopategi, encontramos de nuevo a Jon Enbeita, Andoni Egaña y Sebastian Lizaso. Participó también Mikel Mendizabal e irrumpió con fuerza el *bertsolari* más joven de aquella final, Xabier Euzkitze. Como dato curioso, cabe señalar que el plantel de aquella final lo completaron dos *bertsolaris* que han sido presidentes de la Asociación de Amigos del Bertsolarismo durante dos largas y consecutivas etapas. Uno de ellos es Iñaki Murua, que presidió la asociación entre 2005 y 2018. El otro es Imanol Lazkano, presidente de la asociación desde su fundación. Lazkano fue,



21

21. Andoni Egaña kantuan Bertso Egunean, Olalde aretoan. Mungia, 2018.

aldetik oso harrera ona daukatenak eta sarritan deitzen zaienak mota guztietako ospakizun edo bazkal-afalondoko saioetarako. Horietako bat, Gregorio Larrañaga *Mañukorta*, boom garai horretako izar handietako bat izan, batetik bere bertsoagintza erraz eta xebleagatik eta bestetik, pertsonaiaren beraren nortasun publikoagatik.

URRUNTZE BERTSOLARITZA: ANDONI EGAÑA

Andoni Egaña bertsolari atipiko eta autodidakta da, bertsolari formazioari dagokionez, behintzat. Euskal filologian lizentziatua da, eta Gasteizko Udaleko funtzionario izan zen, baina 1993an utzi egin zuen lanpostu hura, erabat sorkuntzara dedikatzeko. Idatzitako bertsoa ere landu du bai paper euskarrian, bai eta beste euskarri batzuetan ere. Nobelagilea eta euskarazko komunikabide gehienetako kolaboratzailea, bertsolaritza ulertzeko era berri baten aitzindaria da.

Egañak bere belaunaldiko estilorako ekarpen handia egin badu ere, belaunaldi horren definizio oso bat eman ahal izateko, aipatu beharra dago, gutxienez, Jon Sarasua, Sebastian Lizaso, Xabier Euzkitze eta Anjel Mari Peñagarikano, baita Mikel Mendizabal, Iñaki Murua, Millan Telleria edo Jokin Sorozabal ere, besteak beste. Dena dela, argi utzi beharra dago bertsolari belaunaldien arteko bereizketa hori, izan zurruna edo ez, baliabide metodologiko bat baizik ez dela. Hain zuzen, belaunaldien arteko bizikidetzaren bertsolaritzaren beraren ezaugarri bereizgarrietako bat da, eta orain bertan aztertzen dihardugun aldi hau ez da salbuespen.

21. Andoni Egaña improvisando en el Día del Bertso en la sala Olalde. Mungia (Bizkaia), 2018.

además de un reconocido *bertsolari*, el primer presidente de la asociación, cargo que ejerció durante casi dos décadas (1987-2005), convirtiéndose, gracias a su incansable labor de puente entre generaciones, en una figura clave para la articulación del movimiento del bertsolarismo y su renovación.

Así las cosas, y a diferencia de lo ocurrido en los campeonatos anteriores, cuando se celebró el campeonato de 1993 los *bertsolaris* se habían convertido ya en personajes conocidos de la cultura vasca. Los niños les pedían autógrafos por la calle, su presencia en todo tipo de programas televisivos y radiofónicos era constante, y no había acto social en el que el bertsolarismo no estuviera representado. Es el ya mencionado *boom* del bertsolarismo, que alcanzó su cenit con la coronación de Egaña como campeón de *bertsolaris*, en 1993. Los cuatro campeonatos siguientes (1993, 1997, 2001 y 2005) tuvieron un mismo vencedor, Andoni Egaña, de ahí que sea el *bertsolari* más laureado de toda la historia del bertsolarismo.

Pero, como ya hemos dicho, el bertsolarismo es mucho más que los campeonatos, aunque en una exposición tan breve como esta sea poco menos que obligatorio simplificar algo las cosas. En ese sentido, hay bastantes *bertsolaris* que, si bien no se manejan con soltura en los campeonatos (o, directamente, no participan en ellos), gozan de un gran predicamento entre los aficionados, y son requeridos con mucha frecuencia para los distintos festivales y actuaciones de sobremesa. Uno de ellos, Gregorio Larrañaga *Mañukorta* fue sin duda una de las grandes estrellas de la época del *boom*, en parte gracias a un tipo de *bertso* tan sencillo como gracioso, en parte a la propia personalidad pública del personaje.

EL BERTSOLARISMO DEL DISTANCIAMIENTO: ANDONI EGAÑA

Andoni Egaña es un *bertsolari* atípico y autodidacta, al menos en lo que a su formación bertsolarística se refiere. Es licenciado en filología vasca y fue funcionario del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, puesto que dejó en 1993 para dedicarse por completo a la creación. Ha cultivado también el *bertso* escrito, tanto en papel como en otros soportes. Novelista y colaborador en casi todos los medios de comunicación en euskera, es la punta de lanza de una nueva forma de entender el bertsolarismo.

Aunque Egaña es sin duda la referencia principal de su generación, sería imposible entenderla sin tener en cuenta la aportación de otros muchos *bertsolaris*. Entre ellos deberían figurar en primer lugar los ya mencionados Jon Sarasua, Sebastian Lizaso, Xabier Euzkitze y Anjel Mari Peñagarikano, pero también Mikel Mendizabal, Iñaki Murua, Millan Telleria o Jokin Sorozabal, entre otros. Por otra parte, hay que dejar claro que la distinción más o menos tajante entre las diversas generaciones de *bertsolaris* es tan solo un recurso metodológico de exposición. De hecho, la convivencia activa entre generaciones es una característica propia y diferenciadora del bertsolarismo, y esta época que estamos ahora considerando no es una excepción. Como consecuencia, en las diversas actuaciones de la década de los noventa participaban tanto los *bertsolaris* pertenecientes a la misma generación que Egaña, como *bertsolaris* más veteranos entre los que estaban Amuriza, Lopategi, Enbeita, Lazkano, Agirre o Lazkao Txiki.

Si hubiéramos de mencionar solo unas pocas características de este bertsolarismo que fue la base sobre la que se fraguó el *boom*, citaríamos las siguientes: el distanciamiento respecto a los temas que tratan, el ingenio y la planificación de las estrategias y recursos de la improvisación.

Hala, 1990eko hamarkadako bertso-saioetan Egañaren belaunaldiko bertsolariekin batera beste bertsolari zaharrago batzuek ere parte hartu zuten, hala nola Amuriza, Lopategi, Enbeita, Lazkano, Agirre eta Lazkao Txiki, besteren artean.

Boom edo gorakada hori gertatzea ahalbidetu zuen bertsolaritza motaren adierazgarri bakar batzuk gogorarazi beharko bagenu, honako hauek aipatuko genituzke: urruntzea lantzen dituzten gaiei dagokienez, zorroztasuna eta estrategien zein inprobisazio baliabideen planifikazioa. Lehenbiziko ezaugarria, urruntzea, hein handi batean entzuleriaren irizpide zatikatu edo dibergenteari zor zaio. Egañak berak honela azaltzen du: «Basarrik eta Uztapidek behin baino gehiagotan komentatu izan dute zeinen amorragarria gertatzen zen, Francoren garaian, esan nahi zena esaterik ez izate hura. Ez zen izango batere atsegina. Baina askoz ere mingarriagoa da oraingo egoera: zalantza bat hemen, xehetasun bat han, hemen hitz baten esanahia, han esan nahi genukeen zerbait... Nolako zoriona bestea Madrilgo harresiaz haraindi zegoenean, edo entzuleen artean infiltraturiko polizia sekretu bat zenean! Eta nolako larridura orain, beste hori hementxe bertan dagoenean, beste hori gu geu garenean»²⁵.

Entzuleria zatitu baten aurrean, balio partekatua aipatze hutsarekin emozioak eragiteko aukera nabarmenki murrizten da. Batzuentzat pozgarria dena beste batzuentzat mingarria da. Gauzak horrela, urruntzea metodo bihurtzen da, baina metodo horrek beste gaitasun osagarri bat exijitzen du: zorroztasuna. Bertsolariari, gai konprometigarri edo korapilatsuenaren aurrean ere, *ateraldia* aurkitzea ahalbidetuko diona.

Urruntzea eta zorroztasuna ezinbesteko ditu bertsolariak, gaur egun publikoaren aurrean zenbait gairi buruz jarduteak suposatzen duen segadatik airoso irteteko. Bestalde, Uztapideren garaian, bertsolariak errepika zezakeen bertso bera edo ia bera, bizpahiru plazatan. Gaur egun, bertso-saioak irratiz edo telebistaz ematen dira, bat-bateko bertsoen antologiak argitaratzen dira, eta Interneten kontu ezin ahala dira bertso-jardunaldiei buruzko bideoak. Eta horri guztiari jardunaldien kopurua gehitzen badiogu, aise ulertzen da nolako sorkuntza-eritmoa eta orijinaltasun-maila eskatzen zaizkion gaur eliteko bertsolariari.

Gaur proposatzen dizkieten gaiek —gero eta sofistikuagoak eta ez hain arketipikoak—, bertsolariari, Euskal Herriko ez ezik, munduko gorabeherez jakitun egotea exijitzen diote, lehen gertatzen ez zena. Eskakizun horien aurrean, Andoni Egañak bere belaunaldiko beste inork baino hobeto jakin du bat-bateko bertsoak bertsolaritzaren historian sekula ezagutu ez zen mailara igotzen.

Bestalde, ez da ahaztu behar euskarak gero eta hiztun gehiago dituela eta erabilpen eremuak ere gero eta zabalagoak direla. Hizkuntzaren normalizazio prozesua aurrera doan heinean, bertsolariak (idazleak ere bai) lehen ez zeuzkan hainbat baliabide dauzka. Euskararen ezarri diren lexiko eta erregistro espezializatuek, esate baterako, bide ematen du berauek gogora ekartzeko eta parodiatzeko ere bai.

Estrategia eta baliabideen berariazko erabilpenari dagokionez, mota guztietako bertsoetan sumatzen bada ere, bost errimatik gorakoetan igartzen da hori beste inon baino nabarmenago. Errima askotako bertsoetan, dio Egañak, jakin beharra dago non komeni den metaforak sartzea, non harridura esaldiak eta non mugatu argudioak azaltzera.

Horren adibide ona da Egañak, Aretxabaletan, 1994an, Luis Ocaña ziklistaren heriotzaren, ustezko suizidioaren, gainean bota zuen bat-bateko bertso hau:

La primera característica, el distanciamiento, se debe en gran parte a la situación escindida del auditorio. El propio Egaña lo expresa de la siguiente manera: «Basarri y Uztapide han comentado más de una vez lo sórdido que resultaba, en la época de Franco, aquel no poder decir lo que se quería. No debía de ser nada agradable. Pero es más doloroso esto de hoy en día: ¡una duda aquí, un detalle allá, aquí el significado, allá el deseo de decir...! ¡Qué felicidad cuando el otro estaba del otro lado del muro de Madrid, o era un policía de la secreta infiltrado entre el público! Y qué angustia ahora que ese otro está casi aquí mismo, que ese otro somos nosotros mismos»²⁵.

Ante un auditorio dividido, la posibilidad de suscitar emociones por medio de la mera mención de valores compartidos se reduce considerablemente. Si se agrada a unos se incomoda a otros. Así las cosas, el distanciamiento se convierte en método, pero un método que requiere de otra cualidad complementaria: el ingenio, que permite al *bertsolari* arreglárselas, encontrar una *salida (ateraldia)* ante cualquier tema, por muy comprometido o complicado que sea.

Solo el distanciamiento y el ingenio permiten al *bertsolari* salir airoso del trance en que se ha convertido tratar ciertos temas ante el público. Por otra parte, en la época de Uztapide, un *bertsolari* podía prácticamente repetir el mismo *bertso* en dos o tres plazas. Hoy en día, las actuaciones de los *bertsolaris* se emiten por radio o por televisión, se editan antologías de *bertsos* improvisados, y en Internet abundan los vídeos de las diversas actuaciones. Si a eso añadimos el número de actuaciones, podemos hacernos una idea del ritmo de creación y del grado de originalidad que se le exige hoy al *bertsolari* de elite.

Los temas que se les proponen son cada vez más sofisticados y menos arquetípicos, exigen del *bertsolari* un conocimiento de la realidad del País Vasco y del mundo que no se requerían anteriormente. Ante estos requerimientos, Andoni Egaña encabeza una generación que ha sabido elevar el *bertso* improvisado a un nivel desconocido en la historia del bertsolarismo.

Por otra parte, no puede ignorarse que el euskera continúa conquistando nuevos hablantes y nuevos ámbitos de uso. A medida que el proceso de normalización del idioma avanza, el *bertsolari* (también el escritor), dispone de recursos de los que antes carecía. La implantación social de léxicos y registros especializados en euskera, por ejemplo, permite su evocación y su parodia.

En cuanto a la utilización consciente de estrategias y recursos se constata en todo tipo de *bertsos*, pero es en las estrofas de más de cinco rimas donde aparecen con más nitidez. En los *bertsos* de muchas rimas, declara Egaña, es preciso saber dónde conviene metaforizar, dónde exclamar, dónde limitarse a exponer los argumentos.

Buen ejemplo de ello es este *bertso* que Egaña improvisó en Aretxabaleta (Gipuzkoa) en 1994 sobre la muerte, presuntamente suicidio, del ciclista Luis Ocaña:

*Somos nuestro propio guiñol,
cuando no títeres en manos ajenas,
incluso quienes creímos ser vasija
nos convertimos en dedal
Se nos ha ido Luis Ocaña,
discretamente, sin decir palabra
En frente, solo una pistola,
el seguro desactivado;
ni una sola flor, ni un solo altar;*

21. Unai Iturriaga eta Andoni Egaña buruz buru 2005eko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean. BEC, Barakaldo.

*Geure buruen txontxongillo ta
sari besteren titere,
ustez antuxun ginanak ere
bihurtzen gara titare;
Luis Ocaña hor joana zaigu
isilik bezin suabe:
pistola bat parez pare,
zigilurik jarri gabe
ez lore ta ez aldare;
baina inortxo ez asaldata
egin zazute mesede,
askatasunak mugarik ez du
heriotz orduan ere.*

Ikusten dugunez, lehenbiziko bi errimak aprobetxatuz, Egaña, aipamen metaforikoen bidez, gizakiaren erabateko hauskortasuna iradokitzen du. Bertsoaren hasieran sortu duen giroaren gainean, Egaña gero elipsi eta metonimiaz beteriko deskribapen bat egiten du, gaia entzutean burura etorri zaion aurreneko argudioarekin bertsoa errematzeko azkenean.

Ezinezko litzateke lan honetan Andoni Egañaren inguruan aglutinatu dugun bertsolaritza honen baliabide guztiak zehaztea; horregatik, adibide bakar batzuk ematera mugatuko gara.

Lehenbiziko txapela irabazi zuen finalean, Egaña aita baten papera egin behar zuen, gaixotasunak jota bere seme bakarra, oraindik umea, galdu berria duen aita batena. Hildako haurraren amak bere fede sendoan aurkituko du kontsolamendua (Jon Enbeitak jokatu zuen amaren rola), aitik (Egaña), ordea, mota guztietako zalantzak ditu. Hona hemen Egañaren jardunaldiko hirugarren eta azken bertsoa:

*Sinimentsu dago ama,
haurra lurpean etzana;
nola arraio kendu digute
hain haurtxo otzana?
Hossana eta hossana,
hainbat alditan esana!
Damu bat daukat: garai batean
fededun izana!*

Bertsolaritza bera ere ez da libratuko zenbait gogoeta ironikotatik, hamarkada bat lehenago pentsaezinak ziratekeen gogoetak. Hona hemen Sarasuak eta Egaña Arantzan, 1992an, afari batean bat-batean moldaturiko bi bertso. Gau berandua zen eta Egaña bertsoan jarraitzeko egokiera defendatzen zuen, harik eta entzuleek amaitzeko agindua ematen zuten arte. Sarasuak, ordea, lehenbailehen amaitu nahi zuen saioa. Aurrena, Sarasuaren bertsoa, eta jarraian Egañaren erantzuna:

*Honek jarraitu egin nahi luke
ene, hau da martingala!
Aitortzen dizut azken-aurreko
nere bertsoa dedala.
Ta honek berriz eman nahi luke
oraindik joku zabala,*



22. Los finalistas Unai Iturriaga (cantando) y Andoni Egaña (en segundo plano) en la final del Campeonato Nacional de 2005. BEC, Barakaldo (Bizkaia).

*pero que nadie se escandalice,
hacedme el favor
que la libertad no admite límites
ni siquiera en la hora de la muerte.*

Como vemos, aprovechando las dos primeras rimas, Egaña sugiere, por medio de alusiones metafóricas, la extrema fragilidad del ser humano. Valiéndose del ambiente creado en el comienzo del *bertso*, Egaña hace luego una descripción plena de elipsis y metonimia, para rematar el *bertso* con el argumento que en realidad fue lo primero que le vino a la mente al oír el tema.

Sería imposible explicitar aquí todos los recursos de este bertsolarismo que hemos aglutinado en torno a la figura de Andoni Egaña, así que nos limitaremos a dar unos pocos ejemplos.

En el campeonato en el que se proclamó campeón por primera vez, Egaña tuvo que representar el papel de un padre que acaba de perder por enfermedad a su único hijo, de corta edad. Al contrario de lo que le ocurría a la madre del niño fallecido (papel representado en aquella controversia por Jon Enbeita), que encuentra consuelo en su inquebrantable fe, al padre (Egaña) le asaltan todo tipo de dudas. He aquí el tercer y último *bertso* de aquella intervención de Andoni Egaña:

*La madre persiste en su fe,
el niño yace bajo tierra;
¿Por qué nos han arrebatado
a nuestra inocente criatura?
Tantas veces he cantado
«¡Hossana, hossana!»
Ahora bien que me arrepiento
de haber sido creyente.*

Tampoco el propio bertsolarismo se libra de consideraciones irónicas, impensables una década antes. He aquí dos *bertsos*, improvisados por Sarasua y Egaña en una cena en Arantza (Navarra), en 1992. Ya de

*hau begiratzuz gaur erizten dut
lehen beldur nintzen bezala,
bertsolaria ta prostituta
antzerakoak dirala.*

*Sarasuaren aldetik dator
ez dakit zenbat atake,
errez salduko naizela eta
hor ari zaigu jo ta ke;
lantegi honek berekin dauka
hainbat izerdi ta neke,
bertsolariek ta prostitutek
sufritzen dakite fuerte,
baina gustora dauden unean
gozatu egiten dute.*

23. Joxe Agirre
Maialen Lujanbiori
txapela jartzzen 2009ko
Bertsolari Txapelketa
Nagusiko finalean. BEC,
Barakaldo.

BERTSOLARITZA MULTIPOLARRA: AZKEN BELAUNALDIK

2009ko Txapelketa Nagusiko irabazle Maialen Lujanbio koroatu izana har daiteke duela hainbat urtetatik hona bazetorrela ikusten zen belaunaldi txandaketaren burutze gisa. Egañaren ondorengo belaunaldiko goimailako bertsolarietako batzuk, Maialen Lujanbiorekin berarekin hasita, honako hauek dira: Unai Iturriaga, Igor Elortza, Jesus Mari Irazu, Jon Maia, Aitor Mendiluze, Iratxe Ibarra, Arkaitz Estiballes, Onintza Enbeita, Etxahun Lekue, Xabier Silbeira, Estitxu Arozena, Oihane Perea, Fredi Paia, Jon Martin, Nerea Elustondo...



23. Joxe Agirre
poniéndole la txapela
de vencedora a
Maialen Lujanbio
en el Campeonato
Nacional de 2009. BEC,
Barakaldo (Bizkaia).

madrugada, Egaña venía defendiendo la necesidad de continuar cantando hasta que los oyentes dieran la orden de parar. Sarasua pretendía terminar la sesión cuanto antes. Canta primero Sarasua, y a continuación replica Egaña:

*Este quiere continuar,
¡Vaya jaleo que estamos organizando!
Declaro que este será
mi penúltimo bertsu,
aunque mi compañero
quiera seguir exprimiendo el bertsu.
Cuando veo su actitud se me confirma
lo que ya sospechaba:
que lo más parecido al bertsolari
es una prostituta.*

*Ya veis que Sarasua
no deja de atacarme
Quizá piensa que soy
fácilmente sobornable.
En este oficio nuestro
hay que sudar y sufrir;
y de eso saben mucho
los bertsolaris y las prostitutas,
pero ambos tenemos momentos
de intenso placer.*

EL BERTSOLARISMO MULTIPOLAR: ÚLTIMAS GENERACIONES

La coronación de Maialen Lujanbio como vencedora del campeonato nacional de 2009 bien puede tomarse como la culminación del relevo generacional que se veía venir desde hacía varios años. Algunas de las figuras señeras de la generación inmediatamente posterior a la de Egaña son, además de la propia Maialen Lujanbio: Unai Iturriaga, Igor Elortza, Jesus Mari Irazu, Jon Maia, Aitor Mendiluze, Iratxe Ibarra, Arkaitz Estiballes, Onintza Enbeita, Etxahun Lekue, Xabier Silbeira, Estitxu Arozena, Oihane Perea, Fredi Paia, Jon Martin y Nerea Elustondo.

El campeonato de 2013 lo ganó Amets Arzallus, y en el de 2017 Maialen Lujanbio conseguía su segunda txapela. Lujanbio y Arzallus son, sin duda, las figuras señeras de este bertsolarismo multipolar de principios del siglo XXI. Mientras tanto, algunos de los bertsolaris de su generación han renunciado ya a participar en los campeonatos, aunque siguen en activo como bertsolaris. Por otra parte, una nueva generación de bertsolaris se va incorporando a la elite, destacando tanto en campeonatos como en otro tipo de formatos. Junto a Maialen Lujanbio y Amets Arzallus, destacan también Sustrai Colina, Beñat Gaztelumendi, Xabier Paya, Julio Soto, Agin Laburu, Miren Artetxe, Alaia Martin y también bertsolaris nacidos en la última década del siglo XX, como es el caso de Miren Amuriza, Jone Uria, Oihana Iguaran, Ane Labaka y Nerea Ibarzabal.

La lista puede alargarse fácilmente, y quizás alguien pueda pensar que es ya de por sí demasiado larga. Ocurre, sin embargo, que la abundancia de excelentes bertsolaris es un dato altamente significativo. Indica, entre otras cosas, que el mito del creador (en este caso, improvisador) que nace siéndolo

2013ko txapelketa Amets Arzallusek irabazi zuen eta 2017an Maialen Lujanbiok bere bigarren txapela lortu zuen. Lujanbio eta Arzallus dira, zalantza gabe, bertsolaritza multipolar honetako XXI. mende hasierako izar nagusiak. Bien bitartean, belaunaldi horretako bertsolarietako batzuek uko egin diote jadanik txapelketetan parte hartzeari, bertsolari gisa jardunean jarraitzen duten arren. Bestalde, bertsolari belaunaldi berri bat ari da goren mailako taldea osatzen, txapelketetan ez ezik beste formatu batzuetan ere gailenduz. Maialen Lujanbio eta Amets Arzallusekin batera, aipatzekoak dira: Sustrai Colina, Beñat Gaztelumendi, Xabier Paya, Julio Soto, Agin Laburu, Miren Artetxe, Alaia Martin, bai eta XX. mendeko azken hamarraldian jaiotako bertsolari batzuk ere, esate baterako, Miren Amuriza, Jone Uria, Oihana Iguaran, Ane Labaka eta Nerea Ibarzabal.

Zerrenda oso erraz luza daiteke, eta agian norbaitek pentsatuko zuen dagoen bezala ere luzeegia dela. Gertatzen dena da, halere, bertsolari bikainen ugaritasun hau guztiz datu esanguratsua dela. Besteak beste, adierazten du sortzailea (gure kasuan inprobisatzailea) jaiotzen delako mitoa zeharo gezurtatua geratzen dela, zeren argi baitago hainbeste bertsolari on egotea, batez ere, bertsolari-eskolei zor zaiela. Ez da berezko dohaina, landu daitekeen zerbait baizik. Edonola ere ukazina da ez dela gure historian sekula izan hain maila altuko hainbeste bertsolari.

Belaunaldi gazteenak bere artea garatzeko aurkitu duen testuinguru soziala ere, funtsean, Andoni Egañak deskribatu duen berbera da: publiko zatitu eta kontrajarria, sendotasunez partekaturiko baliorik eza... Oraindik ikusteko dago gaurko egoera honetan zer eragin izango duen 2018an ETA desagertu izanak, hainbat urte igaro ondoren bere borroka armatua utzi zuenetik (2011n iragarrirako jarduera uztea).

Aztertzen dihardugun azken bi aldietako ordezkari gisa aipatu ditugun bertsolarietan erreparatze hutsarekin ohartzen gara bertsolaritzaren gorenean emakumeen presentzia, zorionez, gero eta gauza ohikoagoa dela, asko falta bada ere benetako parekotasun batera iristeko. Dena dela, aitortu beharra daukagu goren-gorenean egoteko gaitasuna zuten emakume bertsolari guztiek ez dutela aukerarik izan horretarako. Hauxe izan daiteke abagune egokia, bide batez baizik ez bada ere, bertsolaritzan emakumeen partaidetzari dagokionez, aitzindari izan ziren bi emakumeren meritua aitortzeko: Arantzazu Loidi (1967-) eta Kristina Mardaras (1948-).

Guk, izendapen hoberik ezean, *multipolarra* deitu diogun bertsolaritzaren aldi horretara itzuliz, begi bistakoa da oso gutxi direla publikoak eta bertsolariek partekatzen dituzten erreferentzia kulturalak. Eta hori bertsolaritza ulertzeko daukaten eran nabaritzen da. Hala, Amuriza eta Egañaren baitan erreferentzia nagusiak, ahozko tradizioetik aparte, literarioak diren bezalaxe, erreferentzien aniztasuna nabarmena da epigrafe honetan aipatu ditugun bertsolarien artean. Unai Iturriagak, adibidez, oso estilo definitu eta berezia lortu du, komiki munduko elementuak, kaleko euskara mordoiloak, eta bertsolaritzaren munduan orain arte ia sekula erabili ez diren beste hainbat erreferentzia konbinatzen dituena.

Baliteke bakoitzak bere erregistroaren bilaketa izatea bertsolari belaunaldi berrien ezaugarri garrantzitsuenetako bat. Beste ezaugarri bat, zalantza gabe, bertsogintza inprobisatuko teknika baliatzen duten maisutasun harrigarria da. Azkenik, kontuan edukitzekoa da aipatu ditugun bertsolari gazte gehienak gailentzen direla bertsolaritzarekin zerikusirik ez daukaten kulturako beste hainbat arlotan, bereziki, literaturan, kazetaritzan, musikan edo zinean. Horixe da Maialen Lujanbioren eta Amets Arzallusen kasua, baita Beñat Gaztelumendi eta Miren Amurizarena ere, garrantzitsuenak bakarrik

queda totalmente desmentido, porque está claro que la proliferación de buenos y buenas *bertsolaris* se debe, sobre todo, a la labor de las escuelas de bertsolarismo. No es un don innato, sino algo que puede cultivarse. En todo caso, es evidente que nunca en la historia ha habido tantos y tantas *bertsolaris* de tanto nivel.

El contexto social en que la generación más joven ha tenido que desarrollar su arte es, en lo fundamental, el mismo que Andoni Egaña describe: público dividido y enfrentado, carencia de valores fuertemente compartidos... Está por ver en qué medida influirá en ese estado de cosas la desaparición de ETA en 2018, tras varios años de cese de su actividad armada (cese anunciado en 2011).

Basta repasar el elenco de *bertsolaris* citados como representantes de las dos últimas épocas que estamos considerando para comprobar que la presencia de las mujeres *bertsolaris* en la elite del bertsolarismo es, afortunadamente, una realidad cada vez menos noticiable, aunque falta aún mucho para llegar a una paridad real. Con todo, es de justicia reconocer que no todas las *bertsolaris* capacitadas para integrarse en la elite han conseguido hacerlo. Este puede ser un buen momento para reconocer, siquiera de pasada, el mérito de dos mujeres que fueron pioneras de la inclusión femenina en el bertsolarismo: Arantzazu Loidi (1967-) y Kristina Mardaras (1948-).

Volviendo a ese periodo del bertsolarismo que, a falta de mejor denominación, hemos llamado *multipolar*, es evidente que no son muchas las referencias culturales fuertemente compartidas por público y *bertsolaris*, y eso se nota en su estilo y en su forma de entender el bertsolarismo. Así como, aparte de la tradición oral, las principales referencias de Amuriza y Egaña son literarias, la diversidad es manifiesta entre los *bertsolaris* que nos ocupan en este epígrafe. Unai Iturriaga, por ejemplo, ha conseguido un estilo muy definido y diferenciado, en el que se combinan elementos del mundo del cómic, jergas urbanas y otras referencias hasta ahora casi inéditas en el mundo del bertsolarismo.

La búsqueda de un registro propio puede considerarse como una de las características más importantes de las nuevas generaciones. Otra característica es, sin duda, el asombroso dominio de la técnica del *bertso* improvisado. Por último, cabría mencionar que la mayoría de los y las *bertsolaris* jóvenes que hemos citado son figuras destacadas en otros ámbitos de la cultura ajenos al bertsolarismo improvisado, en especial literatura, periodismo, música o cine. Es el caso de Maialen Lujanbio y de Amets Arzallus, pero también de Beñat Gaztelumendi y de Miren Amuriza, por citar solo los más relevantes. Digno de mención es el caso de Uxue Alberdi, que además de *bertsolari* es una escritora de reconocido prestigio (premio Euskadi de Literatura Infantil en 2016 y de Ensayo en euskera en 2020).

Aunque hay más *bertsolaris* que merecerían un estudio estilístico más detallado, la falta de espacio nos obliga a considerar solo la propuesta bertsolarística de Maialen Lujanbio, y ello más bien a modo de mera aproximación. Lo primero que hay que dejar claro es que no sería acertado encasillar a Lujanbio en un determinado estilo de bertsolarismo, porque durante su trayectoria ha ensayado, casi siempre con éxito, más de uno. En todo caso, por encima de los diferentes enfoques que ha desarrollado, destaca en ella la capacidad de observación y la minuciosa exploración de los sentimientos y vivencias. Sea cual sea su propuesta, el bertsolarismo de Lujanbio se sitúa en la frontera de lo literario, y a menudo consigue una plasticidad que recuerda a la del cine. Valga como muestra un *bertso* cantado en la final de 2001. El tema, basado en un suceso entonces reciente, era el siguiente: «Un íntimo amigo tuyo murió la semana pasada en el Himalaya. Hoy has recibido la postal que te había enviado previamente». Este es el segundo *bertso* de la intervención:

gogoraztearren. Aipatzekoa da Uxue Alberdiren kasua ere, bertsolaria izateaz gain, goi-mailako idazlea baita (Haur-Literaturako Euskadi sariaren irabazlea 2016an eta Entsegukoa, euskaraz, 2020an)

Estilo azterketa zehatzagoa merezi duten bertsolariak bat baino gehiago diren arren, guk hemen, espazio falta dela eta, Maialen Lujanbioren bertsogintza proposamenera mugatuko gara eta hor ere hurbilketa soil bat baizik ez dugu egingo. Argi utzi behar den aurreneko gauza da ez litzatekeela zuzena Lujanbio bertsolaritzaren estilo jakin batean sailkatzea, bere ibilbidean, bat baino gehiago jorratu dituelako eta ia beti arrakastaz. Dena dela, garatu dituen ikuspegi desberdinen gainetik, sentimenduak eta bizipenak behatzeko eta zehaztasunez aztertzeke daukan gaitasuna gailentzen da. Edozein dela ere Lujanbioren proposamena, haren bertsogintza literaturaren muga kokatzen da eta sarritan lortzen duen plastikotasunak zinearena gogorazten du. Horren adibide gisa, horra 2001eko finalean kantatu zuen bertso bat. Gaia, orduan gertatu berria zen istripu batean oinarritua, hauxe zen: «Zure lagun min bat, joan den astean hil zen Himalaian. Gaur jaso duzu berak lehenago bidalia zizun postala». Hau de saio hartako bigarren bertsoa:

*Negar egin nahi dut baina
ez egitea hobe da,
malkoak jausiko dira
bestela postal gainera,
ta korritu ta borratu
hemengo muxu ta zera...
Intzirika hasi nahi baina
nihoa aguantatzera.
Imajinatu dezaket
kanpo-base hartan bera...
Bere ilusio ta amets
guzia jua da gainbehera,
ikurrinarekin jua nahi
zazpi milako batera,
ta orain Makulun dago
heriotzaren bandera.*

Oinarri horretatik abiaturik, ezin hobeki menperatzen zuen estilo batean finkatzetik urrun, Maialen Lujanbiok etengabe jarraitu du bide eta estrategia berriak probatzen. Gai honek analisi zehatzago bat eskatuko luke, eta ez da hau leku egokia horretarako. Lujanbiok orain arte probatu dituen inprobisazio-estrategiek ez dute behin ere aurrekoa baztertzen. Alderantziz, esan liteke etengabeko eboluzio bat dagoela eta fase bakoitzak aurreko lorpenak barne hartzen eta hobetzen dituela.

Adibide asko ekar genitzake gaur egungo bertso inprobisatuen izugarritzko kalitatearen lekuko. Horren erakusgai, Maialen Lujanbiok, Irunen, 2017ko txapelketako final aurrekoan bota zituen bertso batzuk. Proposaturiko gaia hauxe zen: «Dena ondo zebilen, argia joan zen arte». Hona abestu zituen hiru bertsoak:

*Trago bat eta beste trago bat
Gure kaletan barrena
Ta piztea da alkoholak eta
Sexu grinak dakarrena
Zure etxera nere etxera*

*Quisiera llorar, pero
mejor será no hacerlo,
no vaya ser que mis lágrimas
emborronen los besos
y las caricias que la postal contiene...
Quisiera estallar en sollozos,
pero sé que he de contenerme.
Imagino el campo-base
e imagino allí a mi amigo...
Sus sueños, sus ilusiones,
todo ha caído en picado.
Él quería poner la ikurriña
en la cima de un sietemil,
y ahora en el Makalu ondea
la bandera de la muerte.*

A partir de ahí, lejos de acomodarse en un estilo que dominaba a la perfección, Maialen Lujanbio no ha dejado de probar nuevas vías y estrategias. El asunto requeriría un análisis más detallado, y no es este el lugar adecuado para desarrollarlo. Las estrategias de improvisación que Lujanbio ha ensayado hasta la fecha no son excluyentes entre sí. Por el contrario, se diría que hay una continua evolución, y que cada fase incluye, mejorándolos, los hallazgos de las anteriores.

Muchos son los ejemplos que podríamos aducir para testificar la enorme calidad de los *bertsos* improvisados de la actualidad. Baste, como botón de muestra, la transcripción de los que improvisó Maialen Lujanbio en Irun (Gipuzkoa), durante una semifinal del campeonato de 2017. El tema propuesto era el siguiente: «Todo iba bien, hasta que se apagó la luz». He aquí los tres *bertsos* que cantó:

*Un trago y otro trago,
vagando por nuestras calles,
y es lo que tiene la mezcla
de alcohol y deseo sexual;
a tu casa, o a la mía,
tras las bobadas de siempre,
hemos entrado a tu habitación,
y esto es lo que ha ocurrido:
la luz estaba apagada,
yo me he desnudado por completo,
y entonces, de repente,
se ha encendido una pequeña luz.
Me miras a la cintura,
no soy lo que creías que era. (x2)*

*Hasta que me he tapado, ha habido
muchas risas, muchas bromas,
nos hemos pasado de boca a boca
los hielos del gin-tonic;
Yo tenía los pechos erguidos,
tú me los moldeabas;
A pesar de mis pantalones estrechos,
de que no uso tacones ni faldas,*

*Betiko gauzak aurrena
Zure logelan sartu garata
Ara hemen ondorena
Argia zegon itzalita ta
Bertan biluztu naiz dena
Ta bapatean piztu egin da
Argi txiki xumeena
Nere gerrira begira zaude
Ez naiz uste zenuena. (x2)*

*Estali arte izan dugunak
Nahiko irri nahiko broma
Ahorik aho pasa dugunak
Gin tonic barruko horma
Bular pareta zut neukan eta
Zuk eman didazu forma
Galtza hestuak nebilzkin arren
Ez takoi ezta ez gona
Hau ta hura naiz
Hartzen ari naiz
Zenbait botika hormona
Gizona eta Andrea nauzu
Ez Andrea ez gizona
Nere inon ez egon nahia ote
Da zure ezin egona. (x2)*

*Gizarte honen estereotipo
Ta gizarte honen usteen
Tranpan zu ari zara erortzen
Eta hori ez dizut uzten
Zuk badakizu nola zizelka
Eta marraztu gaituzten
Ze inporta du gaur ari banaiz
Zure aurrean biluzten
Eta neroni ni neu naizen
Hori bakarrik gorpuzten
Nere gerripe zintzilikako
Desira ari da puzten
Itzali zazu argia eta
Utzi azalari ikusten (x2)*

Amaitzeko, pare bat ohar. Lehenengo eta behin, esan beharra dago, txapelketetan eta lehiaketa formaletan garatzen den bertsolaritza motarekin batera, badela beste bertsolaritza apalago bat, eta, printzipioz behintzat, hemen analizatu ditugunen testu kalitaterik exijitzen ez badu ere, gainerako guztiaren ezinbesteko oinarria dena, festa giroko bat-bateko bertsolaritza da, izaera dialektiko formalekoa eta, normalean, arrandia formaletatik ihes egiten duena. Berrero esango dugu, amaitzeko, bertsolari belaunaldi berriek argi eta garbi erakusten dutela aurreko belaunaldiei dieten mirespena. Adiskidetasunezko dialogoa eta bizikidetzat dago belaunaldi desberdinetako bertsolarien artean, sormenaren gainerako arloetan nekez sumatzen dena.

24. Alaia Martin kantuan, eskuineko aldean Ane Labaka. Actuación de bertsolaris dentro de la programación de verano. Tolosa, 2020.

*soy esto y soy esto otro,
estoy tomando
algunas hormonas,
soy hombre y soy mujer,
ni soy mujer ni soy hombre...
No quiero estar aquí o allá, quizás
sea eso lo que te incomoda. (x2)*

*Los prejuicios y estereotipos
de esta sociedad están
imponiendo su ley en ti,
y eso no te lo puedo permitir.
Bien sabes cómo nos han cincelado,
cómo nos han marcado;
poco importa si hoy me estoy
desnudando ante ti,
intentando ser solo
eso que en realidad soy...
Colgado en mi entropierna,
el deseo se hincha;
apaga la luz, y
deja que sea la piel quien vea. (x2)*

Para finalizar, un par de observaciones. En primer lugar, conviene constatar que, junto al tipo de bertsolarismo que se desarrolla en los campeonatos y en los certámenes más formales, hay un bertsolarismo más a ras de tierra, que no exige, al menos en principio, la calidad textual de los ejemplos aquí analizados, y que, sin embargo, es la base imprescindible de todo lo demás. Se trata de un tipo de *bertso* improvisado más lúdico, de carácter netamente dialéctico, que, por lo general, suele huir de las ostentaciones formales. Reiteraremos, por último, que las nuevas generaciones reconocen abiertamente su admiración hacia las generaciones anteriores. Hay un diálogo fluido y una convivencia entre *bertsolaris* de distintas generaciones que rara vez se da en otros ámbitos creativos.

24. Alaia Martin cantando, a la derecha Ane Labaka. Actuación de bertsolaris dentro de la programación de verano. Tolosa, 2020.



Bertsolaritza informazioaren gizartean

Gabrielle Simonek²⁶ dioen bezala, telematikaren eta komunikabide berrien bat egitearekin aro berri bat sortu da XX. mendeko azken urteetan, eta beronen ezaugarri nagusietako bat informazioa lortzeko eta trukatzeko moduetan gertatu den aldaketa sakonean datza.


XX. mendeko teknologiek (telefonoa, zinema, irratia, telebista) ahozkoaren uste ez bezalako gorakada eragin bazuten, badirudi XXI. mendekoak ahozkoaren eta idatzizkoaren arteko aldea ezabatzen ari direla. Komunikologo²⁷ batzuek adierazi dute, adibidez, txat eta e-posta zerbitzuak erabiltzean, oraingoz hizkuntza idatziaren mekanika baliatzen badugu ere, medio horietako mezuei eraginkorrak izateko komeni zaien barne egitura hurbilago dagoela ahozko hizkuntzatik idatzitik baino.

Baina, bestalde, asko dira hizkuntzaren pobretze prozesu azkarrak ohartarazten gaituzten ahotsak. Pobretze hau, gure ustez, ez da teknologia berriek berekin dakarten ezinbesteko ondorioa, gaikuntza erretoriko-diskurtsibo gabezia nabarmen bati zor zaiona baizik. Gazteenen gaitasun diskurtsiboaren gabezia erremediatzeko, hizketa-eskola gisa familia gunea hondatu izanari eskola-sistemaren gaitasun falta nabarmena gehitzen zaio.

